Getxo
KULTUR ETXEA
EUSKALTEGIA

# IKASTARO TRINKOA

**AURREMATRIKULA EPEA** : **2025eko urtarrilaren 7tik otsailaren 7ra**
**ONARTUTAKOEN ZERRENDAK** : **Otsailaren 11an** ikasleak zerrendan dagoen galdetu behar du

| ORDUTEGIA | ASTEGUNAK | HELBURU MAILA | HASIERA DATA | AMAIERA DATA | ORDUAK GUZTIRA | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 08.00-13.30 | Al Ar Az Og Or | A1-A2-B1-B2-C1 | 2025.02.13 | 2025.06.30 | 415 | 456,50€ |

## AURREMATRIKULA EGITEKO

Aurrematrikula egiteko hurrengo hauek eman behar dira udal euskaltegiko bulegoan:

1. **MATRIKULA ORRIA** datu guztiak letra larriz beteta
2. **ORDAINAGIRIA** ikaslearen izena eta abizenekin
   Matrikula KUTXABANKeko **ES69 2095 0022 0121 1000 1278** kontu zenbakian ordainduko da
   Aukerak:
   - Matrikularen %100
   - Matrikularen %50 aurrematrikulaldian + %50 data hau baino lehen: 2025eko martxoaren 10
3. Aurreko urtean beste euskaltegi batean ibilitakoek HABEren webgunean agertzen den **IBILBIDEA**ren kopia

Dokumentu hauek **bulegoan eman** edo **posta elektronikoz** euskaltegi@getxo.eus helbidera bidali
(**PDF formatua erabili behar da**, ez da beste formaturik onartuko)

**Aurrematrikula egiteak ez du bermatzen ikasleak behar duen taldea egongo denik**
Gertatuz gero, beste irtenbide bat emango da eta konpondu ezin bada, dirua itzuliko da.

## HABEren webgunean ikusi eta kudeatzekoak

- Datu pertsonalak
- Hileroko asistentzia
- Ikasturteko egutegia
- Ikaslearen ibilbidea
- Mailei buruzko informazioa
- HABEren azterketak:informazioa/matrikula
- HABEren diru-laguntzak
- Gainditutako mailen agiriak

Webgunean sartzeko:

1. www.habe.euskadi.eus
2. Ikasle eta irakasleen sarbidea
3. Erabiltzailea: NA+LETRA
4. Pasahitza : NA (Letrarik gabe)
5. Programak edozein pasahitz berri sartzeko aukera ematen dizu (Gomendatua)

## DIRU-LAGUNTZAK

GETXOKO UDAL EUSKARA ZERBITZUA
Getxoztarrentzat
www.getxo.eus/euskara
Getxon erroldatu gabekoek dagokien udalerrian galdetuko dute

HABE
HABEren mailaren bat edo baliokidea gainditu behar.
www.habe.euskadi.eus

## Informazio gehiago, Getxoko Udal Euskaltegiko bulegoan

BULEGO ORDUTEGIA
Irailaren 15era arte : 08.30-14.00 astelehenetik ostiralera
Irailaren 16tik Maiatzaren 31ra: 08.30-17.00 astelehenetik ostegunera
08.30-14.00 ostiraletan

NON GAUDEN
Santa Eugenia plaza, 1 48930 Getxo
Telefonoa: 94.464.62.99
e-posta : euskaltegi@getxo.eus
http://www.getxo.eus/es/euskaltegi

Getxo
KULTUR ETXEA
EUSKALTEGIA

# GETXOKO UDAL EUSKALTEGIKO IKASLEEI

❶ 1993ko abuztuaren 4an, HABEko Zuzendari Nagusiaren ebazpeneko 6.artikuluan oinarrituz:

a. Euskaltegian ez da 16 urtetik beherako ikaslerik onartuko.
b. Taldeak 9 eta 18 ikasle bitartekoak izango dira.
   Talde txikiago edo handiagoak sortu nahian HABEko Lurralde Ikuskatzailetzaren baimen idatzia beharko du euskaltegiak.

❷ Euskalduntze eta alfabetatze taldeetan matrikula, euskaltegiak horretarako antolatutako ahozko nahiz idatzizko probak burutu eta gero egingo da.

❸ Ikaslea derrigorrean onartuko da, beti ere, beharrezkoak diren baldintzak betez gero eta plazarik badago.

❹ Ikasturteari dagokion plangintza ahalik eta zehatzen egitearren, aurrematrikula gauzatu nahi duten ikasleek ikasturte osoko kostuaren erdia ordainduko dute. Diru kopuru hori bueltatuko da baldin eta aurrematrikula baliogabetzeko erabakiaren berri 2025eko otsailaren 7rako helarazten bazaio Getxoko Udal Euskaltegiari edota eskatutako orduan ikasleak behar duen taldea sortzen ez bada,
Eskaerak plazak baino gehiago balira aurrematrikula eginiko ordena kronologikoari estu-estu jarraituta onartuko da ikaslea.

❺ Ikasleek honako eskubideak izango dituzte:

a. Duintasunez tratatuak izatekoa.
b. Euskaltegiaren ardura taldeen aurrean egokiak deritzeten iradokizun eta gora jotzekoak egitekoa. Arazorik edo kexarik izanez gero, honako urrats hauek eman beharko lirateke: lehenengo irakaslearekin konpontzen saiatu eta bigarrenik bulegora jo zuzendaritzarekin hitzordua eskatzeko.
c. Ezarritako ordutegia errespetatua izan dadin; bestalde, eskola orduak bete ahal izan ezean gutxienez bi eguneko aurrerapenaz izango dute berri, arazo larririk gertatzen denean izan ezik.
d. Kalitatezko irakaskuntza jasotzekoa eta euskaltegiak eskaintzen dituen baliabide teknikoak erabiltzekoa.

❻ Ikasleen betebeharrak hauexek dira:

a. Irakasle eta ikaskideen duintasuna errespetatzea.
b. Irakaskuntza sistema eta euskaltegiko programazioa onartzea.
c. Irakasleak agindutako lanak gelan zein etxean betetzea.
d. Taldez aldatzea, irakasleak proposatuta eta ikaslea entzunda, zuzendaritza akademikoa ados dagoela.
e. Matrikula ordaintzea ezarritako epean, baita materiala eta fotokopien gastuak.
f. Baliabide eta instalazioen erabilera egokiaz arduratzea.

❼ Irakasleak ikaslearen jokaerari desegoki edota beronen faltei taldearentzat kaltegarri baderitze ikasleari jakinaraziko zaio. Bere horretan jarraituz gero Gobernu Batzordeak behar diren neurriak hartuko ditu.

❽ Ikaslea 25 ordu jarraian eta aldez aurretik abisatu barik euskaltegira ez badator baja izango da. Ez zaio matrikula dirurik itzuliko. Bestalde, matrikula epeka ordaintzea aukeratu balu, ordaindu bako epeak ordaindu egin beharko lituzke.

❾ Ikaslea ebaluatu ahal izateko, salbuespenak salbuespen, ikastorduetatik %75 bete beharko du. Horrela ez bada ez du maila gaindituko.

❿ AUTOIKASKUNTZAn abenduaren 31rako 30 ordu bere kabuz egin ez dituen ikaslea bajatzat har dezake euskaltegiak.

Santa Eugenia plaza, 1   48930 - ROMO
Telefonoa: 94 464 62 99
Posta elektronikoa: euskaltegi@getxo.eus

# GARRANTZITSUA

1. Aurrematrikula onartzeko ezinbesteko dokumentazioa:
   - Matrikula orria
     Letra irakurgarria erabili
   - Ordainagiria
     Ikaslearen izena eta abizenak agertuko dira

2. Dokumentazioa posta elektronikoz bidali nahi baduzu:
   - PDF formatua erabili
   - Ez da beste formaturik onartuko

3. Bigarren ordainketa
   - 2025eko Martxoaren 10a baino lehen egin beharko duzu
   - Euskaltegiko bulegoan eman behar duzu

4. Ikasturte honetako zure abiapuntua eta helburu maila jakiteko
   - https://www.habe.euskadi.eus/q87jspWar/Q87InicioAplicacion.jsp

5. Asistentziaren jarraipena hilero egin behar duzu
   - https://www.habe.euskadi.eus/q87jspWar/Q87InicioAplicacion.jsp
   - Hilabetea amaitu ondoren ezin da aldaketarik egin

6. Zalantza edota iradokizunetarako bulegora jo
   - Bulego ordutegi barruan
   - Posta elektronikoz
   - Telefonoz

BULEGO ORDUTEGIA
Irailaren 15era arte : 08.30-14.00 astelehenetik ostiralera
Irailaren 16tik Maiatzaren 31ra: 08.30-17.00 astelehenetik ostegunera
08.30-14.00 ostiraletan

HELBIDEA
Santa Eugenia plaza, 1 48930 Getxo
Telefonoa: 94.464.62.99
e-posta : euskaltegi@getxo.eus
http://www.getxo.eus/es/euskaltegi

# HABEren webgunean topatuko duzun informazioa

1. www.habe.euskadi.eus
2. Aukeratu HASI SAIOA pantailaren goiko aldean






IKASLEAREN

# ABIAPUNTUA ETA HELBURU MAILA

LORTU NAHI DUEN AGIRIA KONTUAN HARTUTA

| IKASLEAK LORTU NAHI DUEN AGIRIA | GEHIENEZKO **ABIAPUNTUA** | JARRI BEHAR ZAION **HELBURU MAILA** | GAINDITU BEHAR DUEN MAILA | LORTZEKO ERA |
|---|---|---|---|---|
| **A1** | A1A0 | A1A1 | A1A1 | EBALUAZIO JARRAITUA + ASISTENTZIA %75 |
| **A2** | A2A1 | A2A2 | A2A2 | EBALUAZIO JARRAITUA + ASISTENTZIA %75 |
| **B1** | B2A2 | B1B1 | B1B1 | Azterketa |
| **B2** | C1B1 | B2B2 | B2B2 | Azterketa |
| **C1** | C1B2 | C1C1 | C1C1 | Azterketa |
| **C2** | C1C1 | C2C2 | C2C2 | Azterketa |

| MAILA | | ABIAPUNTUA | AURRERAPENIK EZ | OHIKO AURRERAPENA |
|---|---|---|---|---|
| 1.MAILA | **A1** | A0A0 | A0A0 | A1A0 |
| | | A1A0 | A1A0 | A1A1 |
| | **A2** | A1A1 | A1A1 | A2A1 |
| | | A2A1 | A2A1 | A2A2 |
| | **B1** | B1A1 | B1A1 | B1A2 |
| | | A2A2 | A2A2 | B1A2 |
| | | B1A2 | B1A2 | B1B1 |
| 2.MAILA | **B2** | B2A2 | B2A2 | B2B1 |
| | | B1B1 | B1B1 | B2B1 |
| | | B2B1 | B2B1 | B2B2 |
| 3.MAILA | **C1** | C1B1 | C1B1 | C1B2 |
| | | B2B2 | B2B2 | C1B2 |
| | | C1B2 | C1B2 | C1C1 |
| 4.MAILA | **C2** | C1C1 | C1C1 | C2C1 |
| | | C2C1 | C2C1 | C2C2 |